

Gaur, abenduak 1a, arratsaldeko eskolak bertan behera geratzen dira Arrasateko campusean

2017/12/01

Elurte-arriskuagatik alarma laranzko egoera dagoenez, eta/edo EAEn 200 eta 400 metro bitarteko elur-kota eta 10 cm-tik gorako prezipitazio-lodiera espero denez, eta/edo hainbat mendatetan kateak erabiliz bakarrik igaro daitekeenez, Mondragon Unibertitateak bertan behera utzi ditu arratsaldeko txandako aurrez aurreko eskola guztiak gaur – ostirala, abenduak 1- Arrasateko campusean. Zerbitzu akademikoa internet bidez eskainiko da.

Aste burua aurretik dagoenez, bihar, larunbata, abenduak 2, eguerdian emango da hurrengo abisua webgune honetan, @MUnibertsitatea eta @MU_gep twitter-kontuetan eta KoNet App-an.



Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa